

# K...eta! Kitto!

2017-11-10

1.003 zkia.



## NEURRIRA EGINDAKO XL Antzerki Jardunaldiak



10  
EGUN  
KIA

ESKAITZA  
BEREZIAK  
Otsailaren  
9tik 20ra



The Power to Surprise

**NAIA CAR**

Barrio Apalategui, 1  
20600 Eibar.  
Tel.: 943 70 70 33  
[www.naiacar.com](http://www.naiacar.com)

Aprobetxatu Kia-ren 10 Egunak. Deskubritu egizu, Kia gama guztian, teknologian punta-koena prezio ezinhobean.

Kontsumo konbinatua (l/100 km): 4,0-7,6. CO2 emisioak (g/km): 104-177. \*Kia garantia manuala kontsultatu.



# IRAZABAL

## clínica dental



**Ainhoa Zulueta**  
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.  
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,  
Periodontzian, inplantologian.  
**Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian.  
**Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Autran Institutoa. Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza.  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa.  
**Anibal Alonso Doktorea.**

**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00**etatik **22:00**etara  
**Zapatuetan:**  
**10:00**etatik **14:00**etara

# Familiaren Osasuna

**Zure familiaren ahoaren  
osasunaz arduratzen garelako**

**Gutaz fidatu eta jarraiiezaguzu**

**f Facebooken:** Clínica Dental Irazabal **t Twitteren:** @Clinicalrazabal



**FINANTZIAZIO BEREZIA.** Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julían Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR**  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)

**ARGITARATZAILEA:**  
...eta kitto! Euskara Elkarte.

**HELBIDEA:**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**  
erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**  
elkarta@etakitto.eus /  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**  
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,  
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,  
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

**ADMINISTRAZIOA:**  
Marisol Uriarte.

**KOORDINATZAILEA:**  
Ana Aizpuru.

**ERREDAKZIO-BURUA:**  
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA  
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:**  
Maialen Belaustegi  
eta S. Hernandez.

**HIZKUNTZA ARDURA:**  
Juan Andres Argoitia  
eta M. Aranberri.

**PUBLIZITATEA:**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

**TELEFONOA:** 943 20 67 76.

**AZALEKO ARGAZKIA:**  
Teatri Che y Moche

**BANAKETA-ARDURADUNA:**  
Ainhoa Luz.

**TIRADA:** 8.100 ale.

**INPRIMATEGIA:**  
GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.  
**ISSN:** 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\* ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien  
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

# eskutitzak

## – Eibar KE-aren Kontseiluari babesa –

Eibar Kirol Elkartearen familia barruan azkenaldian gertatzen ari diren gertakari larrien aurrean, klubeko akziodun batzuk elkartu egin gara eta ondorengo lerro hauek idatzi ditugu.

Lehenik eta behin esan nahi dugu, kirol eta ekonomia alorrean unerik onenean gauden honetan, azkeneko urteetako egoerarik aztoratuena bizi dugula Elkartearen. Hala ere, argi dugu, Kontseiluaren inplikazioa, borondate ona eta ilusioari esker emaitza onak lortu direla kirol, ekonomia eta egitura-alorrean.

Hauteskundeak egiten diren bakoitzean klubaren agintea hartu nahi duten pertsonak egotea bidetza izateaz gainera, osasuntsua eta interesgarria ere bada, baldin eta normaltasunez eta deskalifikaziorik gabe egiten bada, klubaren egoera zelan hobetu nahi duten argi utziz. Gero, maiatzean, akziodunek aukeraturako dute gehien gustatzen zaien hautagaizta.

Horregatik, deskalifikazioak eta irainak egiten dituztenei gogoratu nahi diegu, Kontseilu honen muinak 15 urtetik gora diharduela kluba kudeatzen, Juan Luis Mardaras, Jaime Barriuso, Alex Aranzabal eta, gaur egun, Amaia Gorostizarekin.

Anonimatua atzean ezkutaturik Kontseiluko kideak iraintzen dituzten horien aurrean protesta egin nahi dugu. Ezin dugu ahaztu modu altruista

eta eskuzabalean dedikatzen diotela klubari euren denbora. Kontseilu horrek 19 milioi euroko suerabita lortu du, gure akzioen prezioa bikoiztu, jokalarien klausulen balioa handitu eta sekulako kirol-emaitzak lortu ditu. Horregatik, akziodun guztien artean, Kontseilu horrenganako babesa lortu nahi dugu. Kontseilu horrek bere lana lasai burutzea nahi dugu, helburu zehatz batekin: talde haundi hau Lehenengo mailan finkatzea eta kluba bera indartzea.

Talde hau osatzen dugunok dei egin nahi diegu Klubeko instantzia eta jarraitzaileei, interes partikularrak alde batera utzita EIBAR KE-ren sentsibilitate ezberdinak adiskidetu eta zuzen kudeatzeko lan egin dezagun.

Baikortasun mezu bat ere bidali nahi dugu, gure klubak egoera inbidia garria bizi du eta une honetaz gozatu behar dugu. Utz diezaiozun Kontseiluari orain arte bezala lan egiten, hobetzeko borondate-arekin eta elkartearen zerbitzura.

Azkenik, gainontzeko akziodun eta zaletuak Kontseiluari babesa adieraztera animatzen ditugu, web-orrian (<http://apoyosdeibar.blogspot.com/es/helbidean>) sinatuz; orain arte 167 lagunengatik sinadurak bildu ditugu.

Aupa Eibar

Eibar KE-aren Kontseiluaren Aldeko Taldea

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**LEPUAN HARTU.-** Norbait edo zerbait bizkar gainean hartu. "Ume txikiña lepuan hartuta heldu zan Arratera".

**LEPUA JASO.-** Kasurik egin ez, jaramonik egin ez, paso egin. Zerbaitek ez digula ardura adierazteko. "Hartzekoduneri, lepuja jaso eta kitto".

## astean esanak

"Etorrinak, noiz arte dira etorrikin? Noiz egiten gara toki batekoak? Galdera horiei erantzun nahi izan diet egindako masterrean. Azkoitira Espainiatik etorrikakoen bertakotzean hiru belaunaldi aztertu ditut: hona etorri ziren lehenengoak herrian ondo hartu zituzten, sozialki mailakatzeko joera bazen arren. Bigarren belaunaldikoek arazo gehiago izan zituzten, hori Azkoitian bertan jaiotakoak izanda. Hala ere, euskaldunak sentitzen dira, lehenengoak ez bezala. Azken hauek identitate lokala dute: azkoitiarrak sentitzen dira, eta beren jaioterrikoak

gero. Bigarregokoei, berriz, identitate espainiarrak euren gurasoekin elkartzeko aukera ematen die. Hirugarren belaunaldikoek, berriz, egun 25 urte inguru dituzte eta guztiak dira Azkoitian jaiotakoak. Den-denak sentitzen dira euskaldunak, baina ez dira definitzen: ez zaie interesatzen identitatea. Talde etniko bakoitzak hizkuntzaren arabera egiten du identitateari dagokion bereizketa, eta harreman anbigua dute euskararekin. Ikuspegi positiboa dute euskararekiko. Ez dute euskaraz egiten, baina oso harro daude bilobak euskaraz bizi direlako; baina oztupoak aurkitzen dituzte lanerako "

(JUAN RAMON ALBERDI, ANTROPOLOGOA)

"Saudi gobernua emakumeoi debeketzen jarraitzen digu gidatzea. Hori dioen legerik ez badago ere, errealitate horren aurrean beste aldera begiratzen du. Aske bizitzeko aurkitzen ditugun hainbesteko oztupoen aurrean, horrek huskeria eman dezake, baina ez da horrela. Saudi Arabiar ez dago garraio publikorik eta, hori dela-eta, gizonetako bat behar dugu lantokira joateko. Edo txoferra kontratatu behar dugu, askotan guk baino gehiago irabaziko duena, eta hori ezinezkoa egiten zaigu. Atzean dagoen arriskua ahaztu barik, asko hiltzen direlako gidatzen ez dakiten 10 urteko mutikoek gidatutako autoek izandako istripuetan"

(MANAL AL SHARIF, SAUDIAR AKTIBISTA)



## Eguenian zabalduko dabe beherapenen azokia

Eibar Merkataritza Gune Irekiak, Eibar-ko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntasunarekin antolatuta, Neguko Aukeren Azoka egingo da datorren astian, eguen, barixaku eta zapatuan, Toribio Etxebarria kalian. Lehen bi egunetan 10:00etatik 20:00etara zabalduko dabe eta zapatuan, barriz, goizez bakarrik, 11:00etatik 14:00etara. Guztira 22 establezimenduk hartuko dabe parte beherapenen azokan, betiko moduan euren produktuak merke-merke eskintzeko: Burbujas y Mas, Casamania, Cedry, Doroti, Farmalur, Gratzina, Guby Mutillak, Guby Neskak, Ikusimakusi, Khloe Baby Shop, Kolorete, Kopiña, Leder, Lide, No Comment, Nona, Ttiki, Txukuna, Vieco eta Xare. Horrekin batera, Federópticos Igmar eta Oskarbi Oinetakoak dendak be azokarekin bat egingo dabe, baiña kalian postua ipiñi biharrian betiko tokixan, hau da, dendetan egingo dittue eskintza berezixak. Bestalde, aurreko ediziñuetako martxan, ...eta kitto! Euskara Elkarteak azokan mahaixa ipiñiko dau, Euskeraz Primeran! kanpainari eskindutakuekin.

## El Corte Ingleseko ordezkariak Museuan

Aurreko asteko barixakuan El Corte Ingleseko ordezkariak gure herriko Armagintzaren Museuren instalaziñuetan egon ziran bisitan. Dinbi Danba tiro olimpikoko Martin Dominguez armagiñak bultzatutako ekimenian Udaleko Kultura Sailak be hartu eban parte. Esandakuaren arabera, ordubete baiño gehixago iraun eban bisitan ikusittakuekin asko gozatu eban merkataritza guneko ordezkariak eta, horrekin batera, Eduardo Robredo Eibarko El Corte Ingleseko zuzendarixak armen munduaren ezagutza zabala erakutsi eban. **Beheko argazkixan**, ezkerretik eskumara: Jorge Niño eta Iñaki Soria (El Corte Ingleseko supermerkatuko arduradunak), Esteban Asensio (El Corte Ingleseko zuzendari-ordea), Patxi Lejardi (Kultura ziñegotzixa), Martin Dominguez (Dinbi Danba), Marina Barrena (Museoko arduraduna) eta Eduardo Robredo (El Corte Ingleseko zuzendarixia).



San Andres parrokixan.

## Eibartarrak sanblasak bedeinkatu dittue aurten be

Aurreko barixakua San Blas eguna zala eta, eibartarrak ohittuari eutsi zetsen aurten be eta goizian goizetik hasi ziran sanblasak bedeinkatzen, horretarako herriko eliza guztietan ospatu ziran mezetan. Betiko lez, San Andres parrokixan 11:00etan egin dakuan jendetza batu zan eta, urtetzerakuan, batek baiño gehixagok eliza pareko eskulturrekin batera argazkixa egin eban. Argazki bilduma ikusteko, [www.etakitto.eus](http://www.etakitto.eus) webgurena, mediatekara jo zeinkie.



Karmelitetan bedeinkatutakua.

asteko  
**273.502**  
datua

*bisita, 147.457 bisitari guztira (2015ian baiño 35.336 bisita gehixago) izan zittuan udalaren webguniak iaz: 244.261 bisita gazteleraz egin ziran eta euskeraz, barriz, 6.814.*



## Santa Agedari kantatzeko kalejirak

Aurreko domekia Santa Ageda eguna zala eta, ohittuari jarraitu zetsen askok eta bezperan koplak kantatzeko kalejiretan ibilli ziran. Hala egin eben eguardixan ...eta kitto! Euskara Elkartek deitutako santaeskera batu ziranak, Eibarko Kantuzaleak eta Musika Eskola-ko trikitilarixak tartian. Kaleetan Kantuz abesbatzak be eguardixan urten eban kalejiran eta illuntzian, barriz, Sostoa abesbatzaren eta presuen aldeko taldiaren txandia izan zan. Argazki bilduma [www.etakitto.eus](http://www.etakitto.eus) webgunian, mediatekan ikusgai dago.



Talde batzuk zapatu goizian eta bestiak illuntzian urten ziran zapatuan. Maialen Belaustegi

## autuan

### MERKADILLUA TOKIZ ALDATU

Datorren astian Ikasenpresa azokia egingo dala eta, horretarako tokixa preparatzen jardungo dabenez, eguaztenero Txaltxa Zelaixan egitten dan merkadillua tokiz aldatu eta Toribio Etxebarria kalian egingo da datorren astian.

### PALESTINAKO ANDRAK

UNRWA Euskadik, Berdintasun Zerbitzua-Andretxearen laguntasunarekin antolauta, "Emakume Palestinarren Ahotsak" izenburuko hitzaldixa emongo dabe Hiba Nusebeh, Maysoun Qawasme eta Ohaila Shomar emakumeen elkarte palestinarretako ordezkariak. Otsaillaren 20xan, astelehenian egingo dabe berba, 18:00etan Portaleko areto nagusixan. Sarrera irekixa izango da.

### TABERNAK APAINTZEN

Aratostietan tabernak apaintzen dabenendako lehiaketia deittu dau udalak aurten be. Izena emoteko epia otsaillaren 23ra arte egongo da zabalik, interneten, [eibar.eus](http://eibar.eus) webguniaren bittartez; telefonoz, 010 edo 943708400 zenbakixetara deittuta; edo zuzenian Pegorara juan eta eskaeria eginda.

[www.kolorlan.com](http://www.kolorlan.com)

667 54 89 16

**KOLORLAN**  
PINTURA LANAK S.L

**ITZULPEN**

**ERA GUZTIETAKO TESTUAK**  
ITZULTZEN DITUGU,  
euskaratik gaztelerara,  
gazteleratik euskarara,  
eta ingelesetik euskarara.

**ZERBITZUA**

[elkartea@etakitto.com](mailto:elkartea@etakitto.com)



Funeraria·Ehortzetxe

**Mugica**

**EIBAR**



Beilatokia  
Funeuskadi Eibar:  
Otaola, 27

**ELGOIBAR**



Beilatokia:  
SIGMA Industrialdea  
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko  
erdialdean



**24 orduko zerbitzu iraunkorra**

📞 **943 20 19 51**

[www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

Euskadiko Lehen Ehortze  
Taldea

GRUPO  
**Funeuskadi**



## Eguaztenian egingo da Untzagan Ikasapresa Azokia seigarrenez

Atzo goizian aurkeztu eben udaletxian datorren astian gurian egingo dan VI. Ikasapresa Azokia. Tknikak koordinauta, Lanbide Heziketako ikaslien artian kultura ekintzaillia bultzatzeko asmuarekin garatzen dan heziketa proiektua da Ikasapresa eta azokia be horrerri lotuta antolatzen dabe.

Aurten seigarren ediziñua beteko daben azokia otsaillaren 16xan, eguenian egingo da, Untzagan, 10:30xetatik 13:30xetara.

Betiko moduan, Lanbide Heziketako ikasliak sortutako era guztietako produktu eta zerbitzuak eskinduko dittue: 207 Ikasapresa izango dira guztira, karpa bittan banatuta. Antolatzailliak emondako datuen arabera, kurtsu honetan 600 Ikasapresatik gora sortu dittue EAE-ko 73 Lanbide Heziketa zentrutan eta horretxan inguruan 4.000 bat ikaslek eta 170 irakasle inguruk jardun dabe biharrian.

## Ilargi\_Fest jaixa bixar gaztetxian

Eibarko Nalua eta Ermuko Nü Shu gazte feministak egun osorako programia preparau dabe alkarlanian bixarko. Egitaraua jolasekin eta poteo musikatu batekin hasiko dabe eta afalosterako, barriz, kontzertuak antolatu dittue Eibarko gaztetxian, Zarauzko Mor MOre taldiarekin, Madrilgo La Otra bakarlarixarekin eta Eibarko Mugi Panderoa taldiarekin. Bestalde, bixar illargi betia eukiko dogula eta, gaberdixan Lasarteko dantzarihen sorgin-dantzak beteko dau gaztetxia.



## Rialton kafe antzokixa zabaltzia proposau dabe jeltzaliak

Eibarko EAJ-PNV alderdiko ordezkariak sasoi batian Rialto ziniak bete eban eraikiña erostia proposau detsa udalari, hori moldatu eta kafe antzokixa zabaltzeko. Jeltzaliak diñuenez, peniak in ikusten dabe gazte eibartarrak Elgetako kafe antzokixaren kudeaketia hartzia "Eibarren kultur eskaera horrerri oindiok erantzun bariarik segitzen dogun bittartian". Gauzak holan, udaleko EAJ-PNV taldiak hauteskundietarako presentau eban programiari heldu detsa atzera be eta, 175. ekimenian jasotakua betetze aldera, Rialtoko eraikiña kafe antzoki billakatzeko biharrian hasteko proposamena egin dabe. Esaten dabenenez, Eibarko udala horretarako egin bihar dan inbersiñuari berandu baiño lehen, aurten aurre egitteko moduan dago.



## LAB, Biltzar Nagusirako prestatze lanetan dihardu

LAB sindikatuaren 9. Biltzar Nagusixa martxan ipiñi dabe eta, ordezkarihen berbetan, "maiatzaren 25 eta 26ian Gasteizen izango dau azken geltokixa prozesu kongresualak eta ordura arteko dinamikia Euskal Herriko eskualdietan garatuko da. Aurtengua kurtsu berezixa da sindikatuarendako, buru-belarri dihardugu biharrian aro barrixa zabaldu nahixan, datorrena 'Gure Garaia', euskal langillion garaixa, euskal sindikalgintzaren garaixa, Euskal Herriaren garaixa izateko. Gogoeta prozesu oso bat egin dogu, gure eredu sindikala birpentsatzeko erronkari helduta eta 9. Biltzar Nagusixan, oin arteko ibilbidia oiñarri hartuta, aldaketa gauzatzeko erabagixak hartuko dittugu".

Ponentiak prestatzen ibilli eta gero, horren inguruko eztabaida prozesuari ekin detse, eskualde guztietan delegatu eta afiliuekin batzarrak egitten dabiz, "ponentzietan proposatzen diran erabagi nagusixak azaldu eta horren inguruan eztabaidatzeko". Debarbarrena maillako presentaziñua eguaztenian egin zan, Portalean. Edoze lan be, interneten, biltzarra.lab.eus helbidian honen gaineko informaziño guztia eskuratu leike.

## Ingurumen legia enpresetan kontrolatzeko proiektua ipiñiko dabe martxan Eibar eta Ermuko udalak

Eibarko udalak, Ermuko udalarekin eta hango Margube enpresarekin batera, enpresetan Ingurumen legia noraino betetzen daben neurtzeko proiektua ipiñiko dau martxan. Asmua herri bixetako enpresak ingurumen-araudixar lotuta euki lekiazen arazo eta premiña nagusixak antzematia da, "holan Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzak finkatutako eskakizuneri aurrea hartzeko". Horretarako, arauak finkatzen dittuan eskakizunak zenbateraino errespetatzen dittuen aztertuko dabe eta, biharrezkua izanez gero, arauak bihar dan moduan betetzeko egin biharreko moldaketak egitten laguntzeko asmua azaldu dabe.



Proiektuaren lehen fasea ingurumen kontuetan aditua dan Margube enpresaren esku lagako dabe: nahi daben enpresa guztieri diagnosia egingo detse, duan. Bestiak beste, sortzen dittuan hondakiñak aztertuko dittue, kasu bako txian aplikau biharreko arauak balorau eta hobekuntza-aukerak billatzeko. Bigarren fase batian, izandako emaitzen arabera, enpresa bako txak bere kabuz egin biharko dittu hobekuntzak, zuzendu biharrekuak konpontzeko neurriak hartuta, bere jardunak legia betetzen dabela ziurtatzeko.



## Udalbatza, zeliakueri laguntziaren alde

Urtarrilleko azken astelehenian egindako plenuan, udal talde guztiak Irabazik egindako proposamenarekin bat egin eta herrixan bizi diran zeliakueri laguntasuna emotiaren alde azaldu ziran, horren aldeko hainbat ekimen adostuta. EQUO, IU- Ezker Anitza eta independientiak osatzen daben Irabazi-Ganemos taldiak udalak EZE Euskadiko Zeliakuen Alkartiarekin kolaboratziaren aldeko moziñua eruan eban plenora eta udalbatzak aho batez onartu eban. Horrekin batera, onartutako moziñuak betetzen diran ala ez ikusteko formulak bultzatzia be onartu eban.

Zeliakueri laguntzeko ekimenen artian, bestiak beste, Eibarren zeliakuendako produktuak erosteko zentrala sortzeko aukeria aztertzia, Eibarko zeliakuak alkartzera animatzeko udalak informaziño kanpaiñiak egittia eta ostalari-tzan diharduenak gaixarekin sensibilizatzer a bideratutako neurriak dagoz (adibidez, zeliakuendako egokixak diran menuak eskinduta).

## Armerixak eta Mekak teknologixia ospitaleraiño eruan dabe

Armerixa Eskoliak eta Elgoibarko Meka Lanbide Eskoliak "RFID" izenarekin ezagutzen dan teknologixia Mendaroko Ospitaleraiño eruan dabe. Bultzatu daben espezializaziño arluari "ospital-arreta" izena ipiñi detse eta proiektuaren inguruan biharrian dabillen lantaldian osasun arloko irakasliak (Meka LH-kuak) eta arlo teknologikokuak (Armerixa Eskolakuak) dagoz eta ikasturte osua emon dabe merkatuko premiñiak zeintzuk diran aztertzen, bestiak beste. Ikerketa horrerri begiratu eta gero, proiektu biri lehentasuna emon detse, beti be Debabarreneko ESI-ren lagunta-

sunari esker. Mendaroko Ospitalari presentau detsen proiektua "RFID teknologixadun biltegi adimentsua" izenekua da eta zirujia arlokuak planteau daben premiñiari erantzutia billatzen dau: kirurgian erabiltzen dan materixalaren erregistro eta jarraipena optimizatzia. Proiektu pilotua gure eskualdeko protesi biltegi batian garatu dabe eta, behin probauta, ospitaleko sistemetan teknologixa hori integratzeko dagan aukeria aztertzen dihardue.



**txotx!** sagardotegi  
**DENBORALDIA**

Eskatu aurrekontua  
konpromisorik gabe

**50.**  
urteurrena

**DARIO**  
bus

[www.dariobus.com](http://www.dariobus.com) - [clientes@dariobus.com](mailto:clientes@dariobus.com)

Tel. 943 741 677

## Egoaizia

### Helburuak eta eskaintako zerbitzuak

Egoaizia orain dela 17 urte Eibarren sortu zen Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakunde bat da, independentea, irekia eta kolaboratzailea. Hegoaldeko herrialdeen errealitate bidegabeenak eraldatu nahian, justizia eta garapena lortzeko lan egiten dute. Errealitate ekitatiboagoak, bidezkoagoak, demokratikoagoak eta solidarioagoak eraikitzen laguntzen dute, eta gizarte eredu berriak sustatzen dituzte (parte-hartzea eta boluntariotza indartuz, bizimodu arduratsu eta sostengarriagoa proposatuz, kontzientziak piztuz eta esperientziak partekatuz. Munduko beste pertsona eta erakundeekin dihardute lanean, komunitateei garapen integrala lortzen laguntzeko, euren amets, premia eta gaitasunen arabera proiektuen bidez. Truke esperientziak bideratzen dituzte eta boluntarioak animatzen dituzte herrialde pobretuetan babesten dituzten proiektuetan inplikatu daitezen.

### Ekintza nagusiak

- "Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpaina" maiatzaren 2tik 7ra.
- "Kontsumo Arduratsuen Jardunaldia" maiatzaren 14an.
- "IV. Bazkari Solidarioa" urriaren 14an.

**helbidea:** Toribio Etxebarria, 26  
77 postakutxa

**telefonoa:** 943 203632

**faxa:** 943 701304

**sare sozialak:** [www.facebook.com/egoaizia](http://www.facebook.com/egoaizia)  
[www.twitter.com/egoaizia](http://www.twitter.com/egoaizia)

**e-maila:** [a.berriozabal@egoaizia.org](mailto:a.berriozabal@egoaizia.org)

**harremanetarako:** Gloria Mora/Alaia Berriozabal



*Egoaziak Perun martxan dauden hainbat proiektutan parte hartzen eta laguntzen du.*

## AFESD

### Helburuak eta eskaintako zerbitzuak

2016ko apirilean jarri zen martxan diagnostikatu gabeko gaixotasunak dituzten Eibarko umeen elkarte. Gizarte segurantzak hartzen ez dituen tratamenduak behar dituzte haur hauek: fisioterapia, hidroterapia, logopedia, naturopatia..., eta elkarteko gurasoen helburua gastu horiei aurre egiteko dirua lortzea da.

Urtean zehar hainbat ekintza egin dituzte (zozketak, bazkari eta txosna solidarioak, bigarren eskuko azokak...) eta, horretaz hain, Eibarko beste elkarte batzuen donazioak jaso dituzte.

Oso efektiboa den *Aquananda* terapia eskaintzen duen Boris Geinzburg doktoreak emandako ikastaroa antolatu zuten Orbea igerilekuan, eta aurten errepikatzeko asmoa daukate. Mikrodonazioen talde bat sortu dute interneten: [teaming.es](http://teaming.es): hilean euro bateko ekarpenak eginez, behar beharrezkoa duten laguntza eskaini ahal zaio elkarteari.

AFESD Elkarte laguntza behar dutenentzako eta, maila batean edo bestean, kolaboratu nahi dutenen guztientzako zabalik dago.

### Ekintza nagusiak

- Zozketak, mikrodonazioak ([teaming.es](http://teaming.es))
- Bazkari, txosna eta azoka solidarioak
- Haurrentzako terapiak...

**telefonoa:** 659124703

**e-maila:** [afesd@outlook.es](mailto:afesd@outlook.es)

**sare sozialak:** [www.facebook.com/afesdeibar/](http://www.facebook.com/afesdeibar/)

**harremanetarako:** Estibaliz Blanco



*Jostailuen azoka solidarioa Amañan.*



eluniversopordescubrir.com webguneko sortzaileak dira Elena Gil eta Sergio Ruiz. Gertaera paranormalak, ufologia, mitologia eta bestelako gai misterioitsuak lantzen dituzte. Orain, jautzia eman eta Euskal Herriko I. Misterio Jardunaldiak antolatu dituzte otsailaren 25 eta 26rako. Hizlariak hartuko dute parte, eta sarrerak erosteko (25 euro) BBVA-ko 0182 2410 45 0201610649 kontuan diru-sartzea egin behar da eta info@jornadasdelmisteriodelpaisvasco.com helbidean horren berri eman. Sarreretako 5 euro Eibarko AFESD elkarteari emango zaizkio.

## ELENA GIL eta SERGIO RUIZ (I. Misterio Jardunaldiak):

# “Arrateko Amaren agerpena gertakari ufologikoa da”

– Zerk bultzatu zaituzte jardunaldi hauek antolatzeraz?

**Sergio:** Aurretik gabiltza misterioaren mundu honetan, eta webgunea eta Youtubeko kanala dauzkagu horrelako gaiak tratatzeko. Gero, Mufonen (Mutual UFO Network) bitartez Arlo Ufologikoan espezializatu nintzen. Amerikako Estatu Batuetan, Ingalaterra eta munduko edozein toki normaletan, honek balio du, baina Espainian ez. Beraz, ezin naiz horretara dedikatu, baina misterio kontuetan jarduten den jendearekin hartu dut profesionaltasuna: Cuarto Mileniokoak, D-Maxekoak... Tira, ikusi genuen gai honen inguruan ez zela ezer antolatzen Euskal Herrian eta, denbora honetan maisuak diren misterioaren profesional asko ezagutzeko zortea dugunez, zerbait antolatzea pentsatu genuen.

– Zergatik Eibarren?

**S:** Elena, nire bikotea, Eibarkoa da, ni hemen bizi naiz eta Eibar nire sentitzen dut. Horregatik. Gainera, hainbat babesleren laguntza izan dugu.

– Bi egun irauten duten jardunaldiek, hainbeste hizlariarekin eta, gainera, euren arloan famatuak direnekin... zaila izan da antolakuntza?

**S:** Oso hizlari garrantzitsuak bilduko dira Coliseoan. Bigarren jardunaldiak antolatzen gabiltza!

**Elena:** Hauek txiki geratu zaizkigu! Jendea sartzen hasi zen, bertan parte hartu nahi zuten, eta utzi izango bagenie, jardunaldiek iraupen bikoitza izango lukete.

**S:** Zaila da horrelako izenekin kartela osatzea. Irailetik gabiltza honetan lanean.

– Nortzuk dira hizlariak?

**S:** Cuarto Milenioko Jaime Garrido, Pedro Amoros, Enrique Echezarra gasteiztarra eta Miguel Pedrero; Canal Sur-en saio bi eta 36 liburu argitaratu dituen Garcia Bautista; Arabako Parapsikologia Elkarteko (ASEPA) Luis Uriarte; Sebastian D'Arbo; Steve Locse; Jorge Sanchez; Ivan Martinez; Fran Recio; Raul Sacrest; Paco Gonzalez; Eduardo Lurueña; Teresa Porqueras; eta Juan Gomez.



– Denetariko gaiak, beraz.

**S:** Horrela da. Baina igarleak eta mediumak ez ditugu ekarriko.

**E:** Ia denak kaskarrak dira, iruzurrak.

**S:** Paloma Navarretaren HEPTA taldea bai da handia, Gobernu eta hainbatekin egiten dute lan, eta eurekin bai gera gaitzke aho zabalik. Baina beste iruzurrik ez, hemen dena oso serioa da: ikerketak, denak karrerekin... zientifikoko eta moralki zaindua.

– Badaude mugimendu eszeptiko asko, zientzialariak eta abar, kontu guzti hauek zalantzan jartzen dituztenak.

**S:** Guk dena zalantzak jartzen dugu. Nik ufologia, kontu militarra, konspirazio errealak (ez konspiranoiak)... sinesten ditut. %97a esplikatzen ahal dut, baina geratzen den %3a ez. Kanpotik datorrela dakigu, onartu nahi edo ez. Mundu guztiak daki hori, baina ezin da onartu.

– Zergatik ezin da onartu?

**S:** Gure eskema apurtuko lukeelako.

**E:** Gure gizartea doktrinamendu batean oinarritzen da,

eta sinesten dugun hori existitzen ez dela esaten badigute, dena eroriko litzateke, eliza katolikotik hasita. Ermita bakoitza agerraldi marianoa ez dela esaten badizut, zer?

**S:** Denak kontu ufologikoak dira. Arrateko ama, adibidez, Fatimakoaren tamaina berekoa da. Hau da, ikusi zuten izakiaren tamainakoa; eta ez ziren ama birjina ez aingeruak, izarretako bizilagunak ziren, ez dakigu zehazki nongoak. Hori Vatikanokoak berak daki.

– Eibarren misterio gosea ikusi duzue?

**S:** Radio Eibar eta Radio Marcan egin ziguten elkarrizketan jendeari misterioarekin izan dituzten kontuak kontatzeko eskatu genion. Gauza asko iritsi zaizkigu.

**E:** Kasuak jasotzen hasi naiz, benetan zirrargarriak direnak.

**S:** Estatuko Segurutasun Zerbitzuek ere hainbat gauza bidali dizkigute, Eibartik hurbileko kurba batean egin diren begiztatzeak, agerpenak, guztiz hutsik dagoen etxe batean musika entzutea... Hori dena Eibaren gertatzen da.



Orain arte, eibartarrek, euskeraren inguruan mintzapraktika egiteko aukera izan dute eta dute Berbetan programaren bidez: Gurasoak Berbetan, Berbetan Orokorra eta Dendariak eta Ostalariak Berbetan.

Ongi etorri Berbetanera Udaleko Gizartekintza sailak eta ...eta kitto!-k 2016an elkarlanean martxan jarri zuten egitasmoa da. Ongi etorri Berbetanera programarekin haratago joan nahi izan da. Eibarren bizi garen herritar desberdinak, heldu berriak, urteak daramatzatenak edota bizitza guztian bertan bizi direnak elkartu eta elkar ezagutzeko dinamika da. Horretarako, auzoetan (Amaña, Urki eta Urkizun) bizilagun-taldeak eta sareak sortu dira. Euskera ardatz gisa hartuta, euskal kultura zein herriko kultura desberdinak ezagutzeko aukera ematen du.

**ISMAEL SAMADI**

Jatorri desberdinetako pertsonak ezagutzeko aukera eta aberastasun kulturala eskaintzen dit. Askotan, jendeak, ezezagunak diren gauzei beldurra izaten die. Jendea gertutik ezagutzeak hori ekiditen du. Jendarte osasuntsu eta baketsua izateko ekimen ezin hobea da. Nire ustez mundua oso aspergarria izango litzateke denek kultura eta hizkuntza berbera izango bagenitu.

**ION AZKUNE**

Pertsona berriak eta errealitate desberdinak ezagutzeko aukera bat da. Horrelako egitasmoek jendea euskerara hurbildu, elkarrengandik ikasi eta ezagutzak elkartrukatzeko aukerak ematen dizkigute. Pertsona moduan aberasten zaitu.

**SAFIA ASHRAG**

Euskal kultura eta ohiturak ezagutzeko aukera ematen dizu. Herri bat izatean jendearekiko gertutasuna areagotu egiten da eta horrelako programa bat harreman berriak sortzeko tresna oso baliagarria da.

**ROKHAYA DIAW**

Ekintzek, besteak beste, jendea modu naturalean ezagutzeko aukera ematen dizute eta toki berriak ezagutzen dituzu. Bikoite linguistikoak martxan jarriko dira, eta hori tresna paregabea da euskerara hurbiltzeko eta elkar ezagutzeko, ordutegi askatasunarekin gainera.

**GITA DULAL**

Kanpotik etorri garenontzako euskera ikasteko, erabiltzen hasteko aukera ematen dizu. Baita herrira hurbiltzeko eta ohiturak ezagutzeko ere. Gainera jende berria ezagutu eta lagunak egiten dituzu.

**Programan parte hartu nahi baduzu ...eta kitto!-ko 943 20 09 18 telefonora edo Gizartekintzako 943 70 84 40 telefonora deitu**

Bertan dituzue saioen ordutegia eta maiztasuna

AUZOETAN			SAIO FINKOAK
AMAÑA	URKI	URKIZU	...eta kitto!-n
<b>Tokia:</b> EPA <b>Ordua:</b> 17:00-18:00 <b>Maiztasuna:</b> hileko 2. eta 3. astelehenak	<b>Tokia:</b> Portalea <b>Ordua:</b> 18:00-19:00 <b>Maiztasuna:</b> hileko 2. eta 3. astearteak	<b>Tokia:</b> ...eta Kitto! <b>Ordua:</b> 18:00-19:00 <b>Maiztasuna:</b> asteazkenetan, bi astetik behin	<b>Asteartero:</b> 10:30-12:00 <b>Ostegunero:</b> 18:30-20:00

## 2017ko jarduerak

Ikasturte hasieratik hona hainbat ekintza egin dira eta 2017a ere indartsu dator. Ongi Etorri Berbetan-era batzordea sortu da. Bertan, udaleko eta ...eta kitto!-ko ordezkarietz gain, herritar desberdinak biltzen dira. Urte hasierarekin batera, ideia eta proposamen berriak mahai gaineratu dira.

**Martxoan**, auzoetako saioez gain, **saio finkoak ere hasiko dira** ...eta kitto!-n. Saio horiek programan parte hartzen duten kideei maiztasunez parte hartzeko aukera emango die.

Bestalde, maiatzean, **Bikote linguistikoak** jarriko dira martxan. Orain dela hainbat urte Gizartekintzatik martxan jarri zen egitasmoa arrakastatsua izan zen. Herritar eta programako partaide desberdinek dinamika honekiko interesa azaldu dute, eta ikasturtea amaitzeko berriz ere martxan jartzeko aukera ikusi da.

Horretaz gain, **irteerak eta tailerrak** ere eskainiko dira: Barixakuak Jolasian, akroyoga saioak, Korrika, Zugarramurdira irteera, Gerra Zibileko Eibarko frontearen



aztarnak ikusteko irteera, Errefuxiatuei buruzko erakusketa... eta ekintza gehiago!



*Euskera ikasten dihardut baina ez daukat norekin praktikatu, nire seme-alabekin euskeraz hitz egin nahi dut baina ez naiz gai, lotsa ematen dit, gaizki esaten badut...* Horrelako egoerei aurre egiten laguntzeko sortu zuen ...eta kitto! Euskara Elkarteak Berbetan programa. Premia hori dutenak euskaldunekin elkartzen dira taldeetan, astean behin, helburu

zehatz batekin: giro natural eta informalean euskera praktikatzea.

Euskera praktikatzeko modu ezberdinak eskaintzen ditu, gainera, egitasmoak: asteroko taldeetan (tabernetan elkartu ohi dira) edo "talde naturaletan", hau da, lehendik eginda dauden taldeetan: kuadrilletan, parkean elkartzen diren guraso-taldeetan...



### **NORA ARRILLAGA, euskalduna eta talde natural bateko kidea**

Norak semearen ikastetxe kanpoan igarri zuen gurasoen hizkuntza-ohitura aldatzeko premia eta aukera: *"Gelako gurasoen artean nahiko giro erdalduna izan arren, euskerarekiko jarrera positiboa ere antzeman genuen. Aitzakia horrekin, eta talde naturala izanda, gure arteko harreman-hizkuntza aldatzea erabaki dugu. Gure artean euskeraz egiteko konpromisoa hartu dugu, eskola kanpoan, asteburuetan..."*. Euskerarekiko jarrera aldatu beharra ikusten du Norak: *"Gure hizkuntza dela eta edozein lekutan erabili dezakegula erakutsi behar diegu gure seme-alabei, hizkuntza erabiltzen erakutsi behar diegu"*.



### **IKER OYARBIDE, euskera praktikatzen du ostegunetako talde batean**

Iker da Berbetan programako gazteena. 18 urte ditu eta ez da ohikoa adin horretako gazteak parte hartzea. Euskera praktikatzeko premiak bultzatuta jo zuen atea ...eta kitto!-n: *"Azaroan eman nuen izena, boskotea osatu dugu eta ostegunero elkartzen gara erdikaldeko taberna batean. Oso giro atsegina dugu, asko dibertitzen gara eta gainera euskera praktikatzen dut!"*. Euskeraz hitz egiteko erraztasuna lortzen ari dela aitortu digu Ikerrek, eta programak *"euskera aisiarekin lotzen laguntzen duela, hau da, euskera ez dela lanerako tresna huts bat soilik"*. Gazte zein heldu *"edozein izan daiteke berbalagun. Guztiak animatuko nituzke"*.

Bertan dituzue astero tabernaren batean elkartzen diren taldeak

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
*19:00-19:15ean <b>hiru talde</b> *11:00etan <b>talde bat</b> Untzagako jubilatuen etxean	*19:00etan <b>hiru talde</b>	*10:45ean <b>talde bat</b> *13:00etan <b>talde bat</b>	*19:00etan <b>talde bat</b>	*09:15ean <b>talde bat</b> *15:30ean <b>talde bat</b> *18:30ean <b>talde bat</b>

*Romaesa Benslaiman (irakaslea)*

## «Klaseak eramangarriak eta dibertigarriak izaten saiatzen naiz»

*Romaesa Benslaimanek Haur Hezkuntza ikasi zuen Euskal Herriko Unibertsitatean eta, orain, erlijio islamikoko irakasle ibili da Bizkaiako hainbat eskolatan. 24 urteko eibartarrak graduondoa egin zuen karrera amaitzerakoan eta irailean ireki ziren erlijio islamikoko irakasle izateko zerrendetan izena eman zuen. Ordezkapenak egiten ibili da eta oso esperientzia ona izan dela dio.*



**– Zer moduz erlijio islamikoa irakasten?**

Oso ondo! Bizkaiako hainbat herritan ordezkapenak egiten ibili naiz. Klaseak eramangarriak eta dibertigarriak izaten saiatzen naiz beti. Umeek euren identitatea lantzea da nire asmoa. Hau da, musulmanak direla, baina baita euskaldunak ere. Erlijioaren baloreak lantzen ditugu, bizitzeko moduak; historian zehar eman diren gauzei buruz mintzatzeko gara, sasoi ezberdinen arteko konparaketak eginez; marrazkiak egiten ditugu; abestiak kantatu... badago material didaktikoa. Hala ere, liburuak gazteleraz ematen ditugu eta euskaraz behar ditugu.

**– Betidanik nahi izan duzu irakasle izatea?**

Bai, umeak asko gustatzen zaizkit. **– Eta erlijio islamikoko irakaslea?**

Karrera egiten ari nintzela jakin nuen horren berri. Aukeraz jabetu eta begi onez ikusi nuen. Hala ere, zerrendak itxita egon dira hainbat urtetan zehar 2016ko irailera arte, beraz, ezin nuen horretan jardun, orain arte. Eskoletan erlijio islamikoa eman ahal izateko, Bizkaiako mugimendu gehiago dago Gipuzkoan bai-

no, eta hor egin dira erlijio islamikoa ikasteko eskaera gehiago. Gu horren inguruan informatzen saiatzen gara, ez ezer erreklamatzeko, baizik eta nahi duenak aukera hori duela jakiteko.

**– Zein betekizun behar zenuen erlijio islamikoko irakaslea izateko?**

Magisteritza karrera ikasi izana, EGA edukitzea eta erlijio islamikoa irakasteko egokitasuna erakustea.

**– Zer behar da horretarako?**

Musulmana izatea, erlijioari buruzko ezagutza zabala edukitzea, elkarriketak egiten dizkizute, kongresuetara joan behar duzu... Euskal Herriko Komisio Islamikoak (UCIPV) adierazten du hori horrela dela.

**– Zer moduz ikasleekin?**

Ondo! Hasieran euskaraz natural berba egiten dudala ikusteak harritu egiten ditu pixka bat. Nire gurasoak Marokotik hona lanera etorritako lehenak ziren eta gu hemen jaio garen lehen belaunaldikoak gara. Bakoi-tzak bere identitatea dauka eta nik bi identitate kultural ditut barneratuta. Aniztasuna aberasgarria da. Pertsona bakoitza ezberdina da eta ezin gara multzoka sailkatu. Uste dut zentzu horretan lan egin behar dugula.



Lehen jaunartzerako eta ezkontzetan erresak eramateko JANTZIAK

ume eta gazte  
**Kopina**  
moda

 kopinamoda

San Agustin, 3  
943 204181



**B. Sarasketa, 1 ac**

**943 12 82 31**

*Kafea, opilak, ogia, pintxoak, ardoak...*

Gozatu **EIBARKO**  
**PREZIORIK ONENEKIN!**

**KAFETEGIA**

**OKINDEGIA**



**SUTLONDO**

**LABADEROKUA**

**Egunero 06.00** etatik aurrera



## III. GILDA LEHIAKETA 2017

### III. Gilda Lehiaketan izena emateko epea zabalik dago

...eta kitto! Euskara Elkarteak Euskeraz Primeran! kanpainaren barruan antolatu duen III. Gilda Lehiaketan izena eman nahi duten tabernekek, otsailaren 15era arte izango dute horretarako aukera. Aurten martxoaren 8 eta 9an egingo da lehiaketa, eta iaz moduan sari bi izango ditu: epaimahaiarena (150€) eta herritarrena (150€). Herritarrek botoa eman ahal izateko bozketa-kutxak izango dira tabernetan, eta botoa ematen duten herritarren artean bi pertsonentzat menu berezia zozketatuko da. Aurtengo epaimahaia Mireia Alonso, Iosu Mugerza, Josu Gimenez eta Ruben Etxanizek osatuko dute. Iaz 24 tabernekek hartu zuten parte lehiaketan; epaimahaiaren saria Kontent-ek eraman zuen, eta herritarrena berriz, Cepak.

**NOIZ:** 2017ko martxoaren 8 eta 9an.

**NORENTZAT:** **Euskeraz Primeran!** kanpainan sartuta dauden tabernetzat.

#### LEHIAKETA-OINARRIAK:

- 1.- Taberna bakoitzak **gilda bakarra** aurkeztu ahal izango du lehiaketara. Nahi dituen osagaiak erabiliko ditu, baina **GILDA** izan beharko da.
- 2.- Lehiaketara aurkeztuko den **gilda**, ...eta kitto!-k emandako txartelaren bidez identifikatuko da.
- 3.- Lehiaketara aurkeztuko den **gilda** asko jota **euro batean salduko da**.



4.- Izen-emateko epea: **Otsailaren 15era arte.**

5.- Lehiaketan parte hartuko duten tabernekek aurkeztuko duten **gildaren argazkia** ...eta kitto!-ra bidali beharko dute **hilaren 22**rako, katalogoa egin ahal izateko, **whatsapp** bidez (688 85 95 59) edo **emailez** (komunikabideak@etakitto.eus).

6.- ...eta kitto!-k eramango ditu tabernetara bozketarako kutxak eta orriak, eta martxoaren 13an jasoko ditu.

7.- Bozkatzen duten herritarren artean **Kantabria** Jatetxeko 2 menu berezi zozketatuko dira.

#### SARIAK:

- 1) Epaimahaiaren saria: **150€**
- 2) Herritarren saria: **150€**

**EPAIA:** Martxoaren 17an jakinaraziko da. Harremanetarako deitu **943200918** telefonora.

# Antzerki Jardunaldixak: 40. ediziñua ate joka

Lau hamarkada betetzekotan dira gure herriko Antzerki Jardunaldixak. Aurtengo programaziñua hasteko ixa hilla-bete osua falta dala, astelehenian aurkeztu zeben 40. ediziñoko egitaraua. Hori bai, bixartik aurrera sarrerak lortzeko aukeria izango da: Kutxabank-en internetez eta Coliseoko takilletan (bixar, etzi eta astelehenian, 10:00etatik 14:00ak arte). Udaletxeko aurkezpenian izan ziren, bestalde, Juan Ortega zuzendari artistikoarekin batera, Denis Itxaso Gipuzkuako Kultura diputatua, Miguel de los Toyos alkatea, Iñaki Arriola “jardunaldixetako ediziño gehixen aurkeztu dittuan alkate-ohia” eta gaur egun Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza kontseillarixa dana eta Richard Martin Narruzko Zezen Hezkuntza Esparruko antzerki taldea ordezkaten.

Hillabete pasatxo hartuko dabene ekitaldixak martxuaren 3an hasiko da, betiko moduan, Eibar erdiko kaltetan egingo dan Giza Irudixen Erakusketarekin (15. urtia da egitten hasi zanetik). Amaiera, berriz, apirillaren 6xan izango da. *Jokoz kanpo* euskarazko lanaren errepresentaziñuarekin. Bittarte ezin beteñago horretan, guztira 21 ikuskizunetako 24 funziño ikusi ahal izango dira; euretako bederatzia euskal konpaiñiak eskindutakuak dira eta euskeraz gozatu ahal izango diranak lau izango dira guztira. Antolatzailliak urtero jasotzen dittuen alkarlaneri oinguan lehen aldiz Eibar Kirol Elkartiak babesten dittuan azken bi funziñuak gehitu bihar jakoz: Boro-bil konpaiñiako *Fuera de juego* eta *Jokoz kanpo*, hain zuzen be.

Programak batez be komediak eta dramak biltzen dittu. Komediak zortzi izango dira

(*Héroes*, *Serlo o no*, *Universario*, *La Crazy Class*, *Liquidación por cierre*, *Cervantes ejemplar*, *La educación de los cerdos* eta *Fuera de juego*) eta dramak zazpi (*Los malditos*, *Guernica 1913*, *Frida*, *Terror y miseria en el primer franquismo*, *Ultimo tren a Treblinka*, *Una casa de muñecas* eta *Incendios*). Aittatutakuez gain, *Mami Lebrun* tragikomediak, magia munduko *Gala de magiak*, umientzako *Festara!!!-k*, *Lola y Lolo*, *el musical* musikalak eta *Medea* tragediak osatuko dabe egitaraua, inauguraziñoko solas-hitzaldixa eta giza-estatuekin batera.

Antzerki munduko izen haundixeri erreparatuz, eta Jardunaldixotan “fama” horren aldeko oso zaliak izan ez arren, Josep Maria Flotats, Nuria Espert eta Aitana Sanchez-Gijon azpimarratu geinkez. “Antzerki munduan Flo-




Richard Martin, Miguel de los Toyos, Denis Itxaso eta Juan Ortega.

tats-ek baiño garrantzi haundi-xagua dakenik ekartzia” ezizkua dala esan zeban Juan Ortegak; martxuaren 6xan eskinduko dabene hitzaldixaren ondoren, hurrengo egunian hori be ohikua danez- *Serlo o no* lanian hartuko dau parte aktoriak, “pentsamendua nagusitzen den” antzerki motan. Nuria Espert *Incendios* lanarekin bueltatuko da gurera, aurrekotik 15 urtera. “Orduko hartan Unibersidade Laboralian hartu zeban ostatu eta oin be asmo bera dauka”, esan zeben antolatzailliak. Ramon Barea antzerki munduko beste izen haundi bat izango dau lagun antezlan horretako zortzikotian. Lanak hiru ordu irauten badau be, “ordu laurdeneko atsedendixarekin motz egitten da”. Eta Aitana Sanchez-Gijon Euskal Herrixan estrenatuko dan *Medea*rekin etorriko da. Oin arte errepresentaziñua lagunduta egin badau be, hamen berak bakarrik jardungo dau, “intensidade

gehixagoren billa, baiña txikiagotutako bersiñuan”.

## Eibartarrak bueltan

Hezkuntza Esparrutik sortutako jardunaldixak ibilbide luze eta aberatsa egin dabe, Eibar estatuko antzerki munduan toki garrantzitsuan kokatzeraiño. Unibersidade Laboraleko Narruzko Zezen antzerki taldiak 600 lagunetik gora etara dittu eszenategietara oiñ arte. Aurtent talde horrek Víctor Zegararen “La educación de los cerdos” lana taularatuko dau apirillaren 2xan. Eta Bizkaiko Iris Teatro taldiak martxoaren 15ian antzeztuko dabene “Frida” obra ezin eibartarrago egingo jaku. Paco Obregonek zuzendutako lanian, Rosa Martínez-Alcocer eibartarra izango da monologuaren protagonista, Fran Lasuen beste eibartar batek biolinarekin lagunduta. Lan hori Emakumiaren Naziño-arteko Egunaren inguruan urtero prestatzen dabene “Emakumea eta Antzerkia” sekzi-



Rosa Martínez-Alcocer eibartarrak “Frida” antzeztuko dau.

**MARTXOAN**

3 (barixakua)	17:00	XV. Giza Irudien Erakustaldia M.P.C.)			T. Etxebarrian eta Untzagan
5 (domeka)	20:30	"Héroes" (Txalo Produzioak)	80 minutu	15 euro	Coliseoan
6 (astelehena)	19:00	"Encuentro con J.M. Flotats" hitzaldia			Doan Coliseoan
7 (martitzena)	20:30	"Serlo o no..." (Taller 75/Teatre Lliure)	80 minutu	15 euro	Coliseoan
9 (eguen)	20:30	"Los malditos" (Unahoramentos Producciones)	75 minutu	12 euro	Coliseoan
11 (zapatua)	17:00	"Universario" (Marcel Gros) haurrentzat	60 minutu	5 euro	Coliseoan
12 (domeka)	20:30	"Guernica 1913" (Bonarte Antzerki Elkarte)	70 minutu	5 euro	Hezkuntza Esparruan
14 (martitzena)	20:30	"Mami Lebrun" (Xake Produzioak)	60 minutu	12 euro	Coliseoan
15 (eguztzena)	20:30	"Frida" (Iris Teatro)	80 minutu	12 euro	Coliseoan
16 (eguen)	20:30	"La Crazy Class" (L'Om Imprebis)	100 minutu	15 euro	Coliseoan
18 (zapatua)	20:30	"Terror y miseria en el primer franquismo" (UC)	65 minutu	5 euro	Hezkuntza Esparruan
19 (domeka)	17:00	"Gala de Magia" (Fábrica de Magos) guztientzat	90 minutu	12 euro	Coliseoan
19 (domeka)	20:30	"Gala de Magia" (Fábrica de Magos) helduentzat	90 minutu	15 euro	Coliseoan
21 (martitzena)	20:30	"Liquidación por cierre" /Teatro Che y Moche)	90 minutu	12 euro	Coliseoan
25 (zapatua)	19:30	"Treblinka azken tren" (Vaiven Prod.)	90 minutu	12 euro	Coliseoan
25 (zapatua)	22:00	"Ultimo tren a Treblinka" (Vaiven Prod.)	90 minutu	12 euro	Coliseoan
26 (domeka)	20:30	"Lola y Dolo" Wanted Saria Ekimen Gazteei	50 minutu	5 euro	Hezkuntza Esparruan
28 (martitzena)	20:30	"Una casa de muñecas" (Prod. Teatro Arriaga Bilbo)	105 minutu	12 euro	Coliseoan
30 (eguen)	20:30	"Medea" (Teatro de la Ciudad/Teatro de la Abadía)	75 minutu	15 euro	Hezkuntza Esparruan
31 (barixakua)	20:30	"Cervantes Ejemplar" (Micomicón)	90 minutu	12 euro	Coliseoan

**APIRILEAN**

1 (zapatua)	17:00	"Festara!!" (Tomaxen Abenturak) haurrentzat	60 minutu	5 euro	Coliseoan
2 (domeka)	20:30	"La educación de los cerdos" (Narruzko Zezen)	50 minutu	5 euro	Hezkuntza Esparruan
4 (martitzena)	20:30	"Incendios" (Ysarca Art Prom./Abadía/Invernadero)	180 minutu	15 euro	Coliseoan
5 (eguztzena)	20:30	"Fuera de juego" (Borobil Teatroa)	70 minutu	12 euro	Coliseoan
6 (eguen)	20:30	"Jokoz kanpo" (Borobil Teatroa)	70 minutu	12 euro	Coliseoan

ñuaren barruan aurkeztuko da. Bestalde, Rafa Herce eibartarraren *Guernica 1913* lana taularatuko dau Banarte alkartiak.

Bestelako laneri errebaso azkarra egiñez, kaleko estatu arluan, "artistak errepikatzeko badira be, pertsonajak berrizak dira beti"; *Héroes* lana iazko *Herioak*-en gaztelarazko bersiñua da; *Los Malditos* kanariarrak "lan oso bisualarekin datoz, teknikoki oso konplejua dan montajarekin"; Marcel Gross paillazua bere generoko goi-goixan dago, "bizitza guztia errepresentaziño komikuari emonda"; L'Om Imprebis Valentziako taldiaren *La Crazy Class* estrenau egingo da Euskal Herrixan; *Terror y miseria*

en el primer franquismo "kez-kak dittuen jendiarentzako lan aproposa da", Kantabriako Unibersidadeko gaztiak egin-dakua; Magiaren Gala ikusteko bi saio izango dira, goi maillako bost magorekin (Mago Valen, Carlos Adriano, Imanol Ituiño, D'Albeniz eta Mago Sun); Zaragozatik ekarriko daben *Liquidación por cierre* lehen Eibarren emondako *El funeral* obraren bigarren zatixa da; *Lola y Lolo* indar haundiko musikala da; eta *Una casa de muñecas* Henrik Ibsen-en tes-tuan oiñarritzen da.

Lau lan eskinduko dira euskeraz: *Mami Lebrun*, oin dala gitxi sortutako Xake Produzioak-en eskutik, "eusker



17 urteko D'Albeniz magoa.

kaiñian, sei euskalki erabillita bertan"; *Treblinka azken tren*, Patxo Telleriarena, "jendiak barrutik, protagonista modura, bizi ahal izango daben lana"; *Jokoz kanpo*, kirolari buruz; eta *Festara!!!* umientzat.

Aurkezpenian barriro gogoratu zebe 2012xan hildako Txema Cornagok egindako biharra, Juan Ortegarekin batera osatzen zebe tandemian. "Berak laga gintuenian, oin dala bost urte, inflexioño-puntua izan zan guretzat eta Udala, gurekin batera, antolatzaille izatera pasau zan", esan zebe Ortegak. Helburua, hori bai, hasierakua izaten jarraitzen dau: "Jendia antzerkixan hezitzia".



# PAKITA JUARISTI LIZUNDIA

1. urteurrena (2016-II-11)

Zu joan zara, baina, zureganako gure maitasuna ez. Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza.

Haren aldeko MEZA ospatuko da otsailaren 12an (domeka), 12.30ean, ARRATEKO elizan.



## Kolorez, 3D-an eta Bizirik

XV. mendean Johannes Gutenbergek inprentaren asmatzuzunarekin garai hartako kulturaren iraultza ekarri zuen. Nork esango lioke, orain edonor dela idatziak kolorez inprimatzeko gai etxetik mugitu gabe. Bada hori ez da guztia, azken hilabeteen giza azala inprimatzea ere posible dela jakin baitugu 3D bioinprimagailuaren bidez.



Kartutxoetako kolorezko tinta "biotinta" izeneko prestakin batzuekin ordezkatu dute, giza azala osatzeko beharrezkoak diren osagarri biologiko guztiekin: larruzaleko zelulak, hauek azalaren egitura eratuz eutsiko dituzten hainbat proteina, hazkuntza faktoreak... Horrela, azal arruntaren egitura konplexua osatu dute, lehenik epidermisa edo kanpoaldeko geruza eraikiz, eta jarraian dermisa, geruza sakon eta lodiagoa. Prozesuan zehar kartutxoetako biotintak proportzio egokian nahasten dira era automatizatu batean, 35 minutu eskasetan. Ehuna funtzionala dela ziurtatzeko hainbat proba egin dituzte saioidietan eta epe luzean izan ditzakeen efektuak ikusteko saguetara transplantatu dute.

Bi erabilera nagusi aurreikusiten dira. Lehenengoa, prozesu

industrialetera egokitutako ekoizpena da. Adibidez, kosmetiko eta farmakoak testatzeko balio dezake animalien ordez. Eta bigarrena, pertsona batetik lortutako zelulen biopsiatik abiatuta, pertsona horrentzat propio azal espezifiko sortzeko. Hau, erredura, zauri edo ebaki larriak sendatzeko tratamendu terapeutiko bezala erabili daiteke. Pertsonetan tratamendu gisa onartzeko, Europako osasun erakundeak prozesu osoaren garapena aztertzen dabilta. Birtartean ikertzaileek bioinprimagailuaren bidez ekoiztu daitezkeen beste organo eta ehun batzuen bila jarraitzen dute, odol-hodiak besteak beste.

Albistean gehiago sakondu nahi duenak, "Biofabrication" aldizkari zientifikoan eskuragarri du artikulua (DOI: 10.1088/1758-5090/9/1/015006).



iraia muñoz  
IKERTZAILEA

## Adin txikikoak eta internet: eredu hezigarriak

**Hezkuntzan lan egiten dugunok, askotan, nabarmendu egiten dugu prebentzio eremuko lanketaren garrantzia,** hau da, gurasoei erakustea nola hezi bere seme-alabak Teknologian berrien erabilpenean.

Behaketaren eredu bidezko ikaskuntza, pentsatzen dugun baino askoz efikazagoa da: ez dauka zentzu asko gure txiki-xoei gauza bat esatea eta gero guk kontrakoa egitea, gurasoak garelako aitzakixakin! beraz, ezin diegu esan ezin dutela Interneten ibili gero gu jo ta ke itsututa bagaude gure mugikorren. Hauek guztiak eguneroko gauzak dira baina ematen zaion baino garrantzi handiagoa dute. Eguneroko, momentu oron, hezitzen baikaudede. Baina zer egiten dugu "tramankulu" informatiko berri bat erosten dugunean? Ba, seguruena eskuliburua irakur-

tzen dugula, soilik, apurtzeko beldur garelako. Beraz, zergatik lagatzen ditugu gure seme-alabak ordenagailu baten aurrean ondorioetan pentsatu gabe? Umea ez badago prestatuta, ez baditugu erabilpen arauak finkatzen eta ez badugu familia-kideen arteko komunikazioa bultzatzen, besteak beste... zertxobait gure seme-alaben heziketa hondatzen ari gara. Hau dela eta, hainbat arau jarraitzea ezinbestekoa izango da:

- Ordenagailua etxeko leku neutro batean egongo da. Adibidez, egongelan.
- Interneteko erabilaren arau argiak ezarriko ditugu (jolas-teko, etxeko lanak egiteko, lagunekin hitz egiteko...)
- Pertsonen arteko harremanaren garrantzia irakatsiko diegu, sare sozialak osagarriak baitira.



- Sarean ibiltzeko elkarbizitza arauak bultzatuko dira (errespetua, ezezagunekin ez hitz egitea, argazkiak ez bidaltzea...)
- Familiar konfiantza giroa sortuko da. Gure seme-alabek argi izan behar dute edozein arazoren aurrean gu, gurasoak, laguntzeko prest egongo gara.



iratxe vazquez  
PSIKOPEDAGOGOIA



## Urrezko domina bi Deporreko atletentzat martxako Euskadiko txapelketetan

Aurreko asteburuan Portugaleten jokaturako Euskadiko martxa txapelketan, Eneko Osorok kadeteetan eta Markel Gutierrezek juniorretan urrezkoa irabazi eta txapela jantzi zuten. Domeka goizean, bestalde, Carlitou Mendyk 6. postuan amaitu zuen jauzi hirukoitzeko proba Donostiako belodromoan jokatu ziren Euskadiko absolutu mailako txapelketetan (Deportiboko atleta kadetea da oraindik). Eta, domekan ere, Sopuertan jokoan izan zen Euskadiko kros txapelketan, Julen Teran izan zen eibartar onena, 6. postuan. Pello Osoro 49. izan zen, Jose Mari Bernedo 56. eta Txomin Osoro 83., eta emakumezkoetan Aitziber Urkiolak 27. postuan amaitu zuen.



Eneko Osoro eta Markel Gutierrez.

## Herriko motor mundua ikusgai Portalean

Bihar eguerdian, 12:30ean, inauguratuko dute Portalean "Eibar Mundo Motor" erakusketa, motor kirolaren iragana, oraina eta etorkizuna jasoko duena. Ekitaldia aprobetxatuz, Escuderia Eibarrek denboraldi berri-rako taldea aurkeztuko du, Eflen Llarena, Iñaki Narbaiza eta Txutxi Perez pilotuekin; Aitor Monterok, bestalde, motoziklismoan dituen asmoak kaleratuko ditu; eta, azkenik, Ruben Morok Engimek enpresa aurkeztuko du.



## Arrate Jorge judoka Euskadiko azpitxapeladun juniorretan

Zapatuan Gasteizko Arriaga kiroldegian jokaturako junior mailako Euskadiko txapelketetan, Kalamua klubeko Arrate Jorge judokak zilarrezko domina irabazi zuen eta, horri esker, Espainiako txapelketako fase sektorean lehiazteko txartela eskuratu du. Datorren astean, bestalde, Manu Agirre Madrilen izango da Eibarren azken bi

urteotan jokatu den jiu-jitsu Espainiako Kopa nahitahiezkoa izatea babesteko selekzioa osatzeko prozesuan. Hilaren 18an Madrilen jokatu den Espainiako Kopatik irtengo da martxoan Atenaseko Mundialean parte hartuko duen junior selekzioa eta badaude itzaropenak laukote horretako bi Kalamuakoz izateko.

## Areto-foballeko Debabarrenak Kirolgiren jokaera salatu du

Areto-foballeko probintziako talde indartsuena Liga bertan behera lagatzera behartu dezake Kirolgi Fundazioak hartutako azken erabakiak. Hori salatu du Debabarreneko zuzendaritzak Kirolgiren diru-laguntzen politika kritikatzan duen idatzian. Gaur egun 2. B maila nazionalen Gipuzkoako hiru talde daude: Concepto Egile Debabarreneko lehen taldea 6. da sailkapenean, Lauburu Ibarra 11. eta Internacional Intxaurren 16. eta azkena bere multzoan. Orain arte Kirolgik hiruren artean banatzen zuen diru-laguntza, baina aurren bakarrik Lauburuk jaso du eta "larriena dena, guk askotan informazioa eskatu arren, ez digute erantzun oraindik" Debabarrenetik diotenez. "Betiko" diru horrekin kontaktatzen zutenez, arriskuan ikusten dute proiektua eta baita taldeak jokatzen jarraitzea ere.



## JAIME MAKAZAGA LARRAÑAGA


(1. urteurrena: 2016-II-10)



*Ustekabian jun ziñan, baiña ez edonola.  
Izar berri bat piztu zendun-eta  
Euskal Herriko zeru gaiñan.*

ZURE FAMELIXIA





Javier Riaño eta Julian Eraso lasterketako antolatzaileak De los Toyos alkatearekin 1. azken edizioeko Itzuliaren amaierako etaparen aurkezpenean.

## Eibarren amaituko da hiriburuz-hiriburu jokatu den Euskal Herriko Itzulia

lazkoari jarraituta, Eibarrek hartuko du berriro Euskal Herriko Itzuliaren amaiera. Astelehenean hasi eta zapatuta arte Aste Santu aurreko astea hartuko duen proba barixakuan helduko da gurera, ohikoa denez, Arraten amaituko den etaparekin. Hurrengo egunean, zapatuan, erlojuaren kontrakoak erabakiko du seguruenik itzulia, aurreko edizioetan baino mendi gutxiago gaudituz beharko dituztelako parte-hartzaileek. Itzulia apirilaren 3an hasiko da eta 8an amaituko: lehen etaparen Iruñatik Egues bailararaino joan-

go da tropela, bigarrenean berriz ere Iruñatik Eltziegoraino. hirugarrenak Gasteiz eta Donostia lotuko ditu, laugarrenak Donostia eta Bilbo eta bosgarrenak Bilbo eta Eibar. Apirilaren 7ko etapa erregin horretan txirrundulariek Abadiño, Elorrio, Elgeta, Bergara, Ixua, Trabakua, Ermua, Eibar, Ixua, Etxebarria, San Miguel, Elgoibar, Eibar eta Matsaria zeharkatuko dute Arratera heldu baino lehen. Eibarren hasi eta gurean amaituko den apirilaren 8ko erlojupekoan, bestalde, txirrundulariak Bergararaino joango dira, Karabetako gaina gaudituz.

## Gallastegi eta Salgado hiru onenen artean Gasteizko squash torneoan

Aurreko asteburuan Gasteizen jokatu den Euskal Ligako squash torneoan maila bikainean jardun zuen gure herritik joandako bost lagunez osatutako taldeak; eurretako bik, gainera, finalerdiak jokatu zituzten. Josu Gallastegik bere squash kirol bizitzako lehen finala jokatu zuen, Aitor Yanguas beterranoren aurka, eta 3-1 eman zuen amore. Azpitxapelduaren emaitza berarekin galdu zuen Sergio Salgado ere gero txapeldua izango zenarekin finalerdian. Aipatutakoez gain, Patxi Zulueta eta Aitor Sanchez final-laurdenetaraino heldu ziren eta Miguel Cabanillasek 10. postuan amaitu zuen.



Josu Gallastegi Klub Deportiboko ordezkaria Aitor Yanguas txapelduarekin.

## aire garbiaren bila

### Bizkaiko Biraren 4. etapa egingo dute otsailaren 18an

Bizkaiko Birak martxa bikaina hartu du herriko mendizaleen artean eta Eibarko Klub Deportiboak ipintzen duen autobusa leporaino bete da azken irteeretan. Hurrengo asteko zapatuan Sukarrietan hasiko duten laugarren etapa hori erraztenarikoa da egiteko: motza izateaz gain (18 kilometro), ez du desnibel handirik (puntu gorena Burgoa mendia da, 451 metroarekin). Hori dela-eta, "Bakion amaitzen denez, nahi duenak Txakolinaren Museoa bisitatu ahal izango du". Bisita hori 14:00etarako antolatu dute eta, horrez gain, aukera izango da txakoli kopa bat dastatzeko (1,5€). Zapatu goizean 08:00etan irtengo dute autobus geltokitik eta arratsaldeko 19:00etan aurreikusitako Eibarrera itzultzea.

Hilabete honetako bigarren etapak Sukarrieta eta Bakio lotuko ditu, ibilbide nahiko erraza duen bideari jarraituta.



Irudian Ispaster-Gernika etaparen parte hartu zuten mendizaleetako batzuk Arrola mendiararen tontorrean. Periko Iriondo

Hurrengo irteeretan parte hartzeko, betiko moduan, Klub Deportiboko bulegoetan eman daiteke izena martitzen eta eguenetan (19:30-20:30).

## Hiru pilota partiduko jaialdia izango da gaur Astelenan Klub Deportiboko federatuekin

Afizionatuen mailako jaialdia hartuko du Katedralak gaur arratsaldean, Eibarko Klub Deportiboko pilotarien parte-hartzearekin. 19.15-ean hasiko den jaialdiko lehen partiduan, Eskolarteko Txapelketaren barruan, Zubizarreta-Fuentes Eibarko bikoteak Arrasateko ordezkariak izango ditu aurrez-aurre. Hurrengo bi partiduak Udaberri Txapelketakoak izango dira, biak ere senior mailakoak: Narbaiza-Gaztañaga bikoteak LAP-KEkoari egingo dio aurre eta, amaitzeko, Unamunzaga-Agirresarobe bikoteak nor baino nor lehiatuko du Intxurre klubekoaren aurka. Laugarren bikote batek ere jokatu du asteburu honetan, Gipuzkoako Errendimendu Txapelketaren

barruan: infantiletan, Azkargorta-Tajuero bikoteak partidua izango du gaur 19:00etan Legazpin.

Aurreko asteburuan, federatuei dagokien partiduetan, garaipen bi eta porrot bakarra izan zuten Klub Deportiboko ordezkariak: infantil mailako bikote biak garaile izan ziren Gipuzkoako Errendimendu Txapelketan eta senior mailako ordezkariak galdu egin zuten Udaberri. Azkargorta-Tajuero Euskal Jolaseko bikotea baino gehiago izan zen Astelenan (18-6) eta Camina-Sanchez erraz nagusitu zen Aretxabaletan (3-18). Unamunzagak eta Agirresarobek osatutako bikoteak, bestalde, amore eman zuten Andoinen (22-7).



Agirresarobe atzelariak hirugarren partiduan jokatu du.

## Bingen Zupiria kontseilaria Ipuruan izan zen eguaztenean

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntz Politikaren kontseilariak Eibar Foball Taldeko instalazioak ikusteko aprobetxatu zuen bisita eta gure herriko taldearekin harremanak sendotzeko.



Bisitaldian Jon Rekondo Kirol zuzendariak lagundu zion eta, Eibar FT-ren izenean, Amaia Gorostiza presidentearekin izan ziren Mikel Larrañaga presidente-ordea eta Patricia Rodríguez zuzendari kudeatzailea

## Eski irteera antolatu dute datorren astebururako Klub Deportibotik

Otsailaren 18 eta 19ko astebururako eski irteera antolatu du Klub Deportiboko eski batzordeak. Irteera LHko 5. eta 6. mailako ikasleentzat eta 18 urtetik gorako interesatuentzat prestatu dute. Iraupen eskiko ikasleak Somportera joango dira eta 18 urtetik gorakoek alpinoa landuko dute Astunen. Aurreko urteetakoari jarraituta, helduek Villa Anayet hotelean hartuko dute ostatu eta gazteenek, berriz, Triton aterpetxean. Ordaindu beharrekoa kopuru bera izango da


bi kasuetan: 80 euro. Hori bai, helduei prezio horretan bidaia, ostatua eta gosaria sartuko zaizkien moduan, haurren kasuan bidaia, ostatua pentsio erdian, forfita, monitorea eta alokairua sartuko dira aipatutako prezioan. Izena emateko, interesatuek Eibarko Klub Deportiboko bulegoetatik pasa daitezke martitzenean edo eguenean, 20:00etatik 21:00etara, edo bestela 943-201904 telefono zenbakira deitu dezakete. Informazio gehiagorako: [eski@deporeibar.com](mailto:eski@deporeibar.com)



## Erosketak egiterakoan ere aukeratu **EUSKERA!**

Otsailaren 16, 17 eta 18an Neguko Aukeren Azokan izango gara eta euskerarekin hartzen duzun konpromisoaren truke erosketa-poltsa bat jasoko duzu.

- Eguenean 10:30etik 12:30era eta 17:30etik 19:00etara
- Barixakuan 10:30etik 12:30era
- Zapatuan 11:30etik 13:00etara



\*Parte hartzen duzuenon artean Eibar Merkatalgune Irekiaren eskutik 100€-ko erosketa-txartela zozketatuko dugu (zapatuan, 13:00etan, han bertan)



## JOSE CRUZ GURRUTXAGA (aktorea)

– **Aktore lanetan ikusi izan zaitugu antzerkian eta telebistan... Nola erabaki zenuen bakarrizketak egitea?**

Azken finean beste aukera bat da eta bi arrazoi nagusi daude tartean. Alde batetik, formatu txikia izanik salmenta errazagoa da eta edozein espaziotan sartzeko aukera dago. Eta bestetik, jendeari umore ukitua duen hori erakargarria egiten zaio eta gauza oso garrantzitsu batez ohartu ginen. Stand-up comedy delakoa, edo "El Club de la Comedia-ren" estiloko monologoak oso modan daude eta demanda handia dute. Horrela konturatu ginen euskarazko bakarrizketa gutxi zegoela. Jendeak Ttipia-Kultura Elkartera bakarrizketa eske ditzen zuenean, ea euskaraz zerbait

## "Aktore bezala izan dudan esperientziarik gogorrena izan da"

Jose Cruz Gurrutxaga aktore azkoitiarra "Umorea" izeneko bakarrizketarekin datorkigu hilaren 14an. Goenkale, Hospital Central, Mi Querido Klikowsky edota El Comisario bezalako telesailetan ikusi izan dugu Gurrutxaga, besteak beste, eta antzerkian ere hainbat errepresentazio egin izan ditu. Hala ere, euskal-bakarrizketen eskariak bultzatuta, urtebete inguru darama Gurrutxagak umorea taula gainera eramaten. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako ikuskizuna 19:00etan hasiko da, Portaleko areto nagusian.

bazegoen galdetzen zuen eta horrela sortu zen ideia. Erronka bat izan zen guretzat horrelako formatuko ikuskizun bat egitea, baina zegoen demanda aitzakiatzat hartuta, animatu egin ginen.

– **Zer kontatzen duzu ikuskizunean?**

Beno lehenik eta behin gidoiri buruz esan beharrekoa dut ez dudala neuk bakarrik egin. Ttipia Elkartekoek Pedro Llamas umoristarekin harreman zuzena izanda, berarekin egin nuen lan eta berak idatzitako testuak moldatu ditut, neure egin ditut zenbait kontu aldatuta, hemengo gauzak sartuz eta baita nire "txorradak" gehituz ere. Berari proposamena asko gustatu zitzaion eta aurrera egin nuen. Orokorrean egunero bizitzan gertatzen zaizkigun gau-

zak aipatzen ditut, bikote kontuak, haur eta gurasoen arteko tira-birak, ... edozein sentitu daiteke identifikatuta eta lanaren helburua ongi pasatzea eta barre egitea da.

– **Nolako esperientzia izan da zuretzat lan hau?**

Aktore bezala izan dudan esperientziarik gogorrena izan da zalantzarik gabe. Bat-batean bakarrik zaude publikoaren aurrean. Mikrofono batekin eta ia ordubetean hitz egin behar duzu. Ez duzu antzerkiak ematen dizun babesik eta kezka sortzen zaizu ez dakizulako publikoarekin "feeling" hori lortuko ote duzun. Hala ere, orain arte publikoaren harrera oso ona izan da eta gustura ibili naiz.

## Alba Molinaren kontzertua eguenean Coliseoan

Otsailaren 16an, eguenean Alba Molina zuzenean entzuteko aukera izango da Coliseoan, 20:30etatik aurrera hasiko den kontzertuan. Flamenkoan ikono diren Molina (gitarra joleak) eta Montoia (kantari eta dantzariak) familien alaba "Alba canta a Lole y Manuel" lanarekin etorriko zaigu, berak dioenez inoiz egingo duen diskorik flamenkoenarekin. Gaztea den arren, artista honek oso ibilbide luzea egin du. Bakarkako bere lana kaleratu zuela 15 urte baino gehiago dira eta harrezgero musika estilo ugarietan trebatu da. Aurkeztuko duen lan hau "sentituena eta pertsonalena" dio. Sarrerak 12 euro balio du (%30-eko deskontua, Coliseoaren Lagunak txartelarekin).



## Julian Borao poeta Itzamnan bihar

Itzamna poesia tailerren eskutik bihar 18:00etatik aurrera

Julian Borao poeta bilbotarra izango da Bittor Sarasketa kaleko akademian, "Dias pares e impares" bere liburuari jarraituta eskainiko duen saioan. Deustuko Unibertsitatean Filosofia eta Letretan lizentziatua, 1979az geroztik irakasle dihardu. Gaztetan ekin zion poesia idazteari eta, besteak beste, aldizkari ezberdinetan kolaboratu izan du. Horrekin batera, Herri Irratiko 'El club de los sentidos' saioaren barruan poesiari eskainitako tarteak aurkeztu zuen 2009-2010 denboraldian. Oscar Alberdirekin batera, 2010. urteko ekainean Bilboko Poesia Gauak ekimena sortu zuen.





## "Zergatik, Jamil?" gaur iluntzean

Tartean antzerki taldearen eskutik gaur 20:30ean "Zergatik, Jamil?" antzezlan hartuko du Coliseo antzokiak. Jokin Oregik eta Patxo Telleriak zuzendutako lanean Mikel Martinez eta Eneko Sagardoy antzezleek hartuko dute parte, azalpenik ez duen hilketa baten inguruko tramari jarraitzen dion istorioa kontatzen.

## Edurne Laskurain, Kursaalen kantuan

Gaur estreinatuko dute Donostian, Kursaalen, Opus Lirica konpainia donostiarraren "Carmen". Bizeten lan ezagunean M<sup>a</sup> Jose Montiel, gaur egun maila gorenean dagoen mezzosopranoak hartuko du parte eta, lan berean, Sostoa abesbatzako kidea den Edurne Laskurain Caño eibartarrak ere jardungo du kantuan. Ikuskizunaren bigarren emanaldia asteburuan bertan, domekan eskainiko dute.



## Aratoste-kartela aukeratu dute

Cristobal Aguilo Dominguez (Cartagena, Murtzia) izan da aurtengo Aratosteetako kartel irabazlearen egilea, "Subete a la diversion" lanarekin. Umeetan, berriz, June Araujo Sanchez nagusitu da 11-14 urte bitartekoen mailan, "Atera kalera eta gozatu honela!" kartelarekin eta 10 urtera artekoen mailan, berriz, Ihinzta Fernandez Larrañaga, "Aratoste-etan bigotea beti" kartelarekin.



## "Babeserako kopia" martxoan Harixa Emoten

Bea Salaberriren liburua irakurri eta aztertu zuten martitzenean Harixa Emoten irakurketa klubeko kideek. Egileak ezin izan zuen etorri baina bertan zeudenean atera zioten mamia liburuari Antxon Narbaizaren laguntzarekin. Hurrengo saioa martxoaren 7an izango da, eta irakurriko duten liburua Goizalde Landabasoren "Babeserako kopia".

## Kontzertu bikoitza Ez Dok-en

Gaur gauean, 23:00etatik aurrera, Revolutionary Brothers Music eta Kvalvika DJ-k kontzertua emango dute Ez Dok tabernan. Lehenak Donostiatik datoz eta reggae estiloko musika eskaintzen dute eta bigarren izenaren atzetik, berriz, David Carballo eibartarra dago.



## Joseba Irazoki Belekonez etzi

Domekan, 19:00etatik aurrera, Joseba Irazoki zuzenean entzuteko aukera izango da Beleko tabernan, abeslari eta musikari nafarrak emango duen kontzertuan. Sarrerak 3 euro balio du.

## Playback lehiaketarako izen-ematea

Aratoste domekan (otsailak 26an), 17:00etan, playback lehiaketa egingo da Untzagan ...eta kitto!-ren eskutik. LH 5. eta 6. mailako ikasleek izango dute parte hartzeko aukera eta gehien jota sei lagunez osatutako taldeak onartuko dituzte. Izen-ematea otsailaren 17ra arte egongo da zabalik. Informazio gehiagorako ikastetxean galdetu edo [www.etakitto.eus](http://www.etakitto.eus) webgunean begiratu.

## "Novios" antzezlan Beheko Tokian

Datorren martitzenean, San Balentin egunean, Cruz Noguerak zuzentzen duen "Novios" mikro-antzezlan taularatuko dute Maite Lorezok eta Juanma Canok Beheko Tokia jubilatutakoan, 17:00etan. Horrez gain, otsailaren 23an, 21:30ean Sutondo Labaderokuan eskainiko dute eta martxoan, berriz,





IRATXE GIMENEZ

## Nork erabakitzen ditu gure kili kiliak?

Ikusle gehien dituzten albistegiak kutsu sentsazionalista dutenak direla diote. Ordu erdian sartzen diren berrietan gizakiaren izaeraren kontra esko agertzen dira.

Honen ispilua manifestaldiak dira. Azken egun hauetan demokratikoki aukeratua izan den Trump presidentearen aurkako kale agerraldiak hainbat hiritan zabaldu dira. Ziur nago jende honen artean Guantanamo espetxea eta heriotz zigorraren alde dauden asko daudela garaxika. Baina honek ez die azkurerik ematen.


Trump bere dolarrak kanpainan xahutu ditu, baina bere aurkariek ere jakin dute akatsaren fokoa noren gainean jarri. Eta ze momentutan. Estatu Batuek badakite zer den bandera faltsu lanak egitea. Kanpotik etorritako erasoak gogor erantzun izan dituzte, gudak hasiz ...eta askotan metxari su eman dionak Estatu Batuetako gobernua bera izan da. Gezurrekin eta ardura beste estatuen gain jarri. Baina honek ez du azkurerik ematen. Albistegia *salsa rosa* batean sartuko da eta Errejón eta Iglesiasen arteko amodioaz hitz egingo dugu. Azkura pixkat.

Eta bukatzeko, Australian antolatua den ilegorrien aldeko manifestazioaren berri emango digute. Kriston azkurea. Badugu zertaz hitz egin pintxo potean. Hauek dira gure kili kiliak. Gerrian daudenak. Edo hankapean. Baina beste asko daude (besapekoak, Yemengo egoera, adibidez, garondokoa, aktibisten espetxe zigorrak...) gogoratzen daudenik ere ez ditudanak.

Batzutan beldurra ematen dit pentsatzeak nire kili kiliak beste batek erabakitzen dituela.

## “Elegunea” hizkuntzen autoikaskuntzarako ataria sortu dute Juan San Martin liburutegian

Juan San Martin liburutegiak, Donostiako HABE liburutegiarekin elkarlanean “Elegunea”, hizkuntzak ikasteko baliabideen ataria sortu du. Bertan, hizkuntzak ikasteko interneten dauden doako baliabideak bildu dituzte. Horrela, gaur egungo gizarteak dituen premiei erantzuna eman nahi izan diete. Elegunean interneteko baliabideetarako sarbidea eskaintzen da, URL bidez. Hizkuntzen arabera dago antolatua: euskara, frantsesa, gaztelania, ingelesa eta beste hizkuntza batzuk. Gainera, hiztegi eleaniztunak biltzen dituen gunea ere badu. Hizkuntza bakoitzaren lantzeko baliabide orokorrak, dohaineko ikastaroak eta mintzamina, entzumenaren zein irakurmenaren lantzeko materialak eskaintzen dituzten tokiak ere baditu.



## Eibarko euskeraren inguruko argazki lehiaketa martxan dago hilaren 26ra arte


Udalak, Udal Euskaltegiarekin eta AEK euskaltegiarekin lankidetzan antolatutako “Eibar aldeko euskara hiztegia” argazki digital lehiaketarako lanak otsailaren 26ra arte jasoko dituzte. Parte hartzeko Eibar aldeko euskara hiztegi berba bat hautatu ([www.eibarko-euskara.eus](http://www.eibarko-euskara.eus)) eta hori ondoen irudikatzen duen argazkia atera, besterik ez da behar. Argazkia originala izan behar da, norberak ateratakoa eta formatu digitalean aurkeztu behar dira lanak, posta elektronikoko hauetako batera bidalita: [euskaltegia@eibar.eus](mailto:euskaltegia@eibar.eus), [eibar@ae.eus](mailto:eibar@ae.eus) edo [euskara@eibar.eus](mailto:euskara@eibar.eus). Informazio gehiagorako [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) helbidean begiratu.



## Arrate Osoro, San Blas lehiaketan txapeldun



Aurreko barixakuan Arrate Kultur Elkartearen eta ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik Topalekuan egin zen San Blas lehiaketa Arrate Osorok irabazi zuen, Kontxu Arregi amaren erretetari jarraituta bere izenean aurkeztutako sanblasarekin. Saridunak Aza Ta Porrúa elkartearen produktuekin osatutako otar ederra eraman zuen etxera. Zorionak eta on egin!



## Yllanaren 25 urteak ERMUAN

'Yllana25', antzerki munduan bete dituen 25 urteak laburbiltzen duen lana aurkeztuko du Yllana taldeak gaur gauean, 22:15ean Ermua Antzokian. Sketch onen bildumarekin sortutako lan honetan Fidel Fernandez, Juan Ramos, Luis Cao eta Juan Fran Doradok osatzen duten laukoteak hartuko du parte eta sarrerak 12 euro balio du.



## Bikustik musika taldea ELGETAKO Spaloian

Zapatu arratsaldean, 19:30etan, Jon Gurrutxagak eta Patxi Zabaletak osatzen duten Bikustik bikoteak kantu ezagunen bertsoak eskainiko ditu Elgetako Spaloia kafe antzokian. Sarrera doan da.



## II. Zuhaitz Eguna SORALUZEN

Domekarako Zuhaitz Eguna antolatuko du Soraluzeko udalak bigarren urtez, Mendi Taldearekin batera. II. Zuhaitz Eguna Urkiazelako lurretan egingo da eta igotzera animatzen direnak 09:00etan irtengo dira Plaza Berritik. Landaketa 11:00etan hasiko da eta ondoren hamaiketako egingo dute.

## eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

## hildakoak

- Itziar Zulaika Oñederra. 69 urte. 2017-II-2.
- Emiliana Asurmendi Bidaurre. 100 urte. 2017-II-3.
- Aurora Agirrebeña Alonso. 89 urte. 2017-II-4.
- Javier Igarza Oregi. 83 urte. 2017-II-4.
- Jose Julian Berasaluze Garcia. 72 urte. 2017-II-4.
- Aurora Fidalgo Conde. 74 urte. 2017-II-4.
- Julia Martinez San Jose. 87 urte. 2017-II-8.

## jaiotakoak

- Sara Peribañez Garcia. 2017-I-30.
- Mamadu Coto Dieng. 2017-II-3.
- Malen Ormaetxea Lazkano. 2017-II-3.
- Nere Sologaitua Mujika. 2017-II-5.

## farmaziak

- Barixakua 10  
 EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Zapatua 11  
 EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
- Domeka 12  
 EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Astelehena 13  
 EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
- Martitzena 14  
 EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- Eguaztena 15  
 EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Eguena 16  
 EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Barixakua 17  
 EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

GAUEZ BETI - 2017AN-  
**Mandiola** (S. Agustin, 3)

## SUDOKUA

				6	8	1	
			2	7			
1	6				2		7
		5	1	2			7
2		4				9	1
	1			9	3	5	
3		2				7	4
			9	2			
	9	1	5				

8	6	3	4	9	5	1	2	7
4	5	7	1	2	6	9	3	8
1	2	9	8	7	3	4	6	5
6	8	2	5	4	9	3	7	1
5	3	1	7	6	8	2	4	9
9	7	4	3	1	2	5	8	6
2	1	6	9	3	7	8	5	4
3	4	8	6	5	1	7	9	2
7	9	5	2	8	4	6	1	3

AURREKOAREN  
 EMAITZA

## telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora .....010
- Udaletxea .....943 70 84 00
- Portalea .....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa .....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia .....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak .....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

## Barixakua 10

### ERABAKI BIOT

**19:30/20:30.** Gure Esku Dago-ren ekimenaren aldeko sinadurak. Deporren.

### ANTZERKIA

**20:30.** "Zergatik, Jamil?" (Tartean Teatroa). Coliseoan.

### KONTZERTUA

**23:00.** Revolutionary Brothers Music eta Kvalvika DJ-en saioa. Ez Dok tabernan.

## Zapatua 11

### ANTZERKI JARDUNALDIK

**10:00/14:00.** Sarreren aurrealmenta. Coliseoan.

### ASTELENA PARKEA

**11:00/14:00 eta 16:30/20:30.** Astelena Haur Parkea. Astelena frontoian.

### MUSEOA

**12:30.** "Eibar mundo motor" erakusketaren inaugurazioa. Armagintzaren Museoan.

### MUSIKA

**15:00.** "Go!azen" ikuskizuna. Coliseoan.

### BATZARRA

**16:00.** Eibarko Irratizaleen Elkartekoen urtekoa. Otarra elkartean (San Kristobal).

### GAZTELEKUA

**17:00.** Gaztetxef lehiaketa. Indianokuan.

### UMEENTZAKO ZINEA

**17:30.** "Peter y el dragón". Doan. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

### KIROLA FAMILIAN

**17:30.** Ipurua kiroldegian.

### POESIA

**18:00.** Julian Borao: "Días pares e impares". Itzamna poesia tailerraren eskutik.

### ILARGI FEST

**19:00.** Jolasak eta poteo musikatua. Afalostean kontzertuak: Zarauzko Mor MOre taldea, Madrilgo La Otra bakarlaria eta, amaitzeko, Eibarko Mugi Panderoa. Nalua Eibarko Feministek eta Nü Shu Ermuko Gazte Feministek elkarlanean antolatuta. Gaztetxean.

## Domeka 12

### ANTZERKI JARDUNALDIK

**10:00/14:00.** Sarreren aurrealmenta. Coliseoan.

### KIROLA FAMILIAN

**17:30.** Ipurua kiroldegian.

### KONTZERTUA

**19:00.** Joseba Irazokiren emanaldia. 3 euro. Beleko tabernan.

## Astelehena 13

### ANTZERKI JARDUNALDIK

**10:00/14:00.** Sarreren aurrealmenta. Coliseoan.

## Martitzena 14

### IKASTEN

**10:00.** "Euskal Musika II" hitzaldia, Marina Lertxundiren eskutik (Donostiako Ekintza ikastolako Musika irakaslea eta Zarautzeko parrokiako koruko zuzendaria). Armeria Eskolan.

### IKASTEN

**16:00.** Puntu-tailerra.  
**17:00.** Joskintza-tailerra. Portalean.

### ANTZERKIA

**17:00.** "Novios", Juanma Cano eta Maite Lorenzo aktoreekin. Beheko Tokian.

### BAKARRIZKETA

**19:00.** "Umorea", Jose Cruz Gurrutxagaren eskutik. Portalean.

### ERABAKI BIOT

**19:00.** Gure Esku Dago-ren ekimenaren aldeko sinadurak. Arrate Kultur Elkartean.

## Eguaztena 15

### IKASTEN

**11:00.** Kafe-tertulia: "Medikamentuak, erabili edo abusatu". Untzagako jubilatutuek.

### GURASOAK MARTXAN

**18:00.** "Competencias emocionales" hitzaldia, gurasoentzat. Hizlaria: Baikara-ko Garbiñe Arrizabalaga. Portalean.

### EIBARKO KANTUZALEAK

**19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

## Eguena 16

### IKASTEN

**10:00.** "Gure gizartearen arazoak" hitzaldia, Jesus Mari Mujikaren eskutik. Armeria Eskolan.

### IKASENPRESA

**10:00/13:30.** Ikasentzako azoka. Untzaga eta Txaltxa Zelaian.

### IKASTEN

**17:45.** Dantzaldia. Untzagako jubilatutuek.

### KALERATZEAK STOP

**19:00.** Kaleratzeak Stop plataformakoen bilera irekia. Portalean.

### ERABAKI BIOT

**19:30/20:30.** Gure Esku Dago-ren ekimenaren aldeko sinadurak. Deporren.

### KALEETAN KANTUZ

**19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

### MUSIKA

**20:30.** Alba Molina canta a Lole y Manuel. Coliseoan.

## Erakusketak

### Otsailaren 19ra arte:

– "20 URTE" erakusketa. (Portalean)

### Otsailaren 28ra arte:

– SANTOS TOURIÑOEN argazkiak. (Portalea tabernan)

– CARLOS ROMEROREN argazkiak. (El Ambigú-n)



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurra etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, amama LURDES, bixar urtiak egingo dozuz-eta. Asko maite zaittugu. Paula eta Sergioren partez.



Zorionak, MARA, gaur 9 urte egiten dozuz-eta. Etxekeun eta, batez be, Kloe zure ahiztiaren partez.



Zorionak, ALAITZ, domekan zortzi urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, ASIER Agote Ramirez, atzo bi urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, IKER, urtarrillaren 31n zortzi urte egin zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, LIBE, hillaren 5ian bi urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, JON, haraiñegun urtetxua bete zenduan-eta. Aitta, ama, aitxitxa-amama eta, batez be, CLAUDIAREN partez.



Zorionak, OIER (martitzen 4 urte) eta amatxo Mª JOSE (eguenian) urtiak beteko dozuez-eta. Musu haundi bana famelixaren partez.



Zorionak, HELENA, astelehenian lau urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Martinen partez.



Zorionak, LIBE, gure etxeko erizaiñak gaur 3 urte betetzen dituu-eta. Musu potolo bat famelixaren eta, batez be, Anerren partez.



Zorionak, JULEN, hillaren 6xan zazpi urte egin zenduaz-eta. Laztan haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, MIREN, atzo zortzi urte bete zenduaz-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, LIBE, atzo bederatzi urte bete zenduaz-eta. Famelixaren partez.



(ANTZOKIAN)  
11n: 17:00

"Blinky Bill. El koala"

Zuzendaria: Deane Taylor

## zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

11n: 19:45, 22:30

12an: 20:00

13an: 20:30

"Lion"

Zuzendaria: Garth Davis

(2 ARETOAN)

11n: 17:00, 19:45

12an: 17:00, 20:00

13an: 20:30

"Loving"

Zuzendaria: Jeff Nichols

(ANTZOKIAN)

11n: 17:00(1 aretoa), 19:45, 22:30

12an: 17:00(1 aretoa), 20:00

13an: 20:30

"Cincuenta sombras..."

Zuzendaria: James Foley

(2 ARETOAN)

11n: 22:30

"El fin de ETA"

Zuzendaria: Justin Webster



**i** Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Pisua salgai Txaltxa-Zelai kalean. 2 logela, egongela, sukalde eta komuna. 6. solairua, igogailuarekin. Terraza eta ganbara. Tel. 665-733954 eta 629-449646.  
– Baseria salgai Bergarako Ubera auzoan. 15 hektareako terrenoarekin. Berriztuta eta eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 653-332125. Nerea.

### 1.2. Errentan

– Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. 3 logelakoa. Tel. 689-571882.  
– Bi lagunentzako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Ezinbestekoa igogailu izatea. Tel. 640-378020.  
– Eibarko gazte batek pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 665-705978.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

– Lokala salgai Urkizu dorreetan. 85 m<sup>2</sup>. Prezio interesgarria. Deitu 17:00etatik 20:00etara. Tel. 606-773886.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-351638.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukaldari jarduteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 657-773138.  
– Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile, garbitzaile eta zaintza lanera. Tel. 602-394753.  
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 634-388843.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 698-270997.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Externa. Tel. 661-001246.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Externa. Tel. 655-310861.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita ospitalean ere. Tel. 659-908513.  
– Mutila eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 631-414397.  
– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Erreferentziak. Tel. 600-212516.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-678577.  
– Neska eskaintzen da gaez nagusiak zaintzeko. Tel. 632-733573.  
– Eibarko mutila eskaintzen da garbiketa lanetarako eta metal arloko sektorean lan egiteko. Tel. 630-112222.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 632-139806.

– Neska eskaintzen da gaez nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-402356.  
– Neska arduratsua eskaintzen da sukaldari moduan eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 602-141712.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-137969.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka eta baita asteburuetan ere. Tel. 609-543957.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Interna eta baita asteburuetan ere. Tel. 632-218828.  
– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko. Orduka eta baita asteburuetan ere. Tel. 632-552206.  
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko, nagusiak zaintzeko eta dendari jarduteko. Esperientzia. Tel. 632-426847.  
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Esperientzia handia eta gaitasun ziurtagarria. Tel. 616-348918.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-230281.  
– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna. Esperientziarekin. Tel. 688-723258.  
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-018667.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 632-691242.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 680-526228.  
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak eta esperientzia. Tel. 632-026510.  
– Neska eskaintzen da goizez umeak edo nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta p egorak garbitzeko. Baita 19:00etatik aurrera eta asteburuetan ere. Tel. 612-223075.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 692-314985.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 699-859881.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 666-197835.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 666-197831.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 662-420221.  
– Emakumea eskaintzen da sukalde-laguntzaile jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 636-882838.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 649-626975.  
– Mutila eskaintzen da sukalde-laguntzaile jarduteko. 5 urteko esperientzia. Tel. 622-321095.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 634-437852.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita gaez ere) eta garbiketarako egiteko. Tel. 652-032117.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 686-561811.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 658-273486.  
– Emakumea eskaintzen da arratsaldean gaez nagusiak zaintzeko. Tel. 658-638900.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-506715.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 631-110716.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 642-650900.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 603-683176.  
– Gizonezkoa eskaintzen da lorezain jarduteko, mendian lan egiteko eta segurtasunean aritzeko. Tel. 666-655269.  
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 664-357381.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 637-004773.  
– Emakumea eskaintzen da etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 638-421827.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita gaez ere. Interna. Tel. 655-776380.  
– Emakumea eskaintzen da gaez edo asteburuetan lan egiteko. Orduka. Tel. 655-677035.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 662-012834.  
– Erizaintzan lizentziatutako neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 604-164719.  
– Emakume euskalduna eskaintzen da arratsaldean, gaez eta asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 660-114801.

## 5. Irakaskuntza

### 5.1. Eskaerak

– Irakaslea hartuko genuke etxean lau urteko umearekin ingelesa lantzeko. Tel. 661-700439.

### 5.2. Eskaintzak

– DBH, Batxilergo, Heziketa Zikloak eta Selektibitateko klase partikularrak ematen ditut. Tel. 685-739709.  
– Arkitektura ikasketak ditut eta Batxilergo Teknikoko eta DBH 3. eta 4. mailetak klase partikularrak (Matematika, Fisika eta Kimika) emango nituzke. Tel. 679-843282.  
– DBH, Batxilergo eta Unibertsitate mailetak matematika etabar ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Goizez ere bai. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Binilozko diskoak, LP-ak eta singleak erosten ditut. Tel. 688-624326.  
– Senar-emaztearendako logela eta bi oheko beste bat salgai. Guxi erabilitakoak eta merke. Tel. 661-075520.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

– Aurreko astean ezkontz-eratzuna (urte zuria eta horia) galdu nuen Eibar erdialdean. 2016-VI-4 data darama. Ordaindu da. Tel. 652-771377.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18  
publizitatea@etakitto.eu

# VI. IKASENPRESA Azoka

Lanbide Heziketako ikasleek sortutako era guztietako produktuak eta zerbitzuak!



ELUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO



#feriaikasepresa @ekingune



¡Participa con nosotros!  
Gurekin parte har ezazu!  
www.ekingune.tknika.eus

etakitto.eus


Asteburuko kirol agenda

Asteburuko kirol emaitzak

# Eibarko kirol emaitzak kirol agenda

**FOBALLA**  
**FOBALL ZALETUA**  
**ARETO FOBALLA**  
**ESKUBALOIA**  
**ERRUGBIA**  
**SASKIBALOIA**  
**WATERPOLOA**  
**PILOTA**

etakitto.eus



Eibarko liburategiak hizkuntzen autoikaskuntzarako "Elegunea" interneteko ataria sortu du HABEko liburategiarekin batera

2017-02-08 10:40 am  
Eibarko Juan San Martin Liburutegiak eta Donostia HABE Liburutegiak elkartean sortu duten hizkuntzak ikasteko ballabideen ataria da



LAB sindikatuak Biltzar Nagusirako ponentzia aurkeztuko du bihar arratsaldean Portalean

2017-02-07 12:39 pm  
LAB sindikatua 9. Biltzar Nagusia ebletu dute. Ordezkariei berbetan, "malatzaren 25 eta 26an Gastelzen izango du azken geltokia prozesu

Agenda	
8:30	6:30 pm Erakusketa: Portaleak 20 urte @ Portalean
9:00	10:00 am Ikastari: "Bake prozedurak mun... @ Arrieta Eskolan
9:30	6:30 pm Erakusketa: Portaleak 20 urte @ Portalean
7:00	7:00 pm Hitzaldi: "Zoru Klausula" @ Portalean
7:00	7:00 pm Kaleatzeak Stop @ Portalean (3. pisuan)

# MERKE ALDIA

2 mō betaurreko  
graduatu

erreflexuen aurkako leiarrekin

**77€**

aurretiko prezioa: 97€

Gure betaurreko  
guztiak **bilduma**  
berrietakoak dira

[www.multioplicasgipuzkoa.com](http://www.multioplicasgipuzkoa.com)   

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • ERRENTERIA • IRUN • LASARTE • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Bidebarrieta, 2 • Tel.: 943 20 05 22 • EIBAR

**MULTIÓPTICAS**  
lehena zerbitzu optikoetan